

PUFFIN

Logelako leihotik sartzen zaizkidan goizeko lehen eguzki printzek esnatu naute, baita txorien txorrotxioek. Azkenean iritsi da eguna, banoa! Aspaldidanik aldaketa bat behar nuen, gauza berriak ezagutu, toki berriak, paisaia berriak ikusi. Bidaiatzeko gogo asetu, eta azkenean iritsi da hainbeste itxaron dudan eguna! Islandia nire zain daukat, izotzez eta suz osaturiko paisai nahasketa zoragarriekin batera. Goizeko zortziak dira, eta arrapalada batean altxa naiz ohetik, etxeko guztiak esnatuz. Komunera joan, eta hogeituro urteko neska gazte baten aurpegia ikusi dut ispiluan islaturik: ile hori luze eta eder bat, bizitasun eta indarrez beteriko bi begi, dir-dir egiten duten bi begi berde ikusgarri. Pekaz beteriko masailen tartean, ezpain txikiek osatzen duten irribarre polit bat ikusten dut marraztuta. Nire aurpegia da, bai, alaitasunez distiratzen duena.

Neure burua txukuntzen bukatu ondoren, maleta egiten hasi naiz, eta eskuak alde batera eta bestera mugitzen hasi naiz ziztu-bizian, kamiseta bat, gero beste bat, jertse bat...sartuz. Oso urduri nagoela antzematen da. Bidaiarako behar dudan guztia prestatzen bukatu ondoren, kotxea kargatu eta abiatzeko ordua iritsi da. Kotxean famili guztia sartu gara, ama, aita, eta anaia, irribarrez, ni bistatik denboralditxo batean galtzeko irrikaz.

-Aita, mugi zaitetz, hegazkina galduko dut bestela! -esan diot handik pixka batera aitari

-Lasai Nerea, oraindik denbora soberan dago, ez zaitetz hainbeste urduritu -erantzun dit berak.

Erlojuari begira joan naiz bidai guztian, eta azkenean aireportuaren kartela ikusi dut. Kotxetik mailetak atera eta korrika atera naiz. Jada, hegazkina hemen da, eta agurtzeko ordua iritsi da. Nire tripan izugarritzko mina, korapiloa sentitzen dut, gurasoak eta anaia ikusi gabe pasako dudalako denbora luzea.

-Agur, ama, agur aita, agur anaiatxo alproja, txintxo portatu! -esan diet, muxu bana emanetz.

-Idatziezaguzu, eta argazkiak bidali ahaztu gabe! -esan dit amak, urruntzen ari nintzenean.

Hegazkinean sartu eta orain berriro itxarotea besterik ez zait gelditzen. Orduak izugarri motel pasatzen dira, baina leihotik begira ez naiz aspertzen. Loak hartu nau azkenean, nekearen poderioz. Orduak aurrera eta aurrera joan dira igarotzen.

Bat-batean ahots batek esnatu nau:

- Bidaiaren amaiera: Islandiara iritsi gara!

Eserlekutik altxa eta hegazkinetik atera naiz. Orain bai, iritsi naiz esanez neure buruari. Aireportuko sarreran taxi txiki bat dut zain, bertan sartu naiz eta martxa! Taxiko leihotik joan naiz paisaia ikusten, zoragarria benetan, txundigarria. Handik pixka batera etxetxo polit baten aurrean gelditu da, nik alokatutako etxea da, Interneten ikus zitekeen bezalakoa. Beltza da kanpotik eta egurrezko teilatua du. Barrura sartu eta hau ere polita iruditu zait, eta espero nuena baino handiagoa, gainera! Gauzak ateratzen hasi naiz maletatik, lehenik arropa, baina hau armairuan uzten ari nintzela, zerbait ikusi dut gelako zoko ilun batean. Ez dut antzeman zer den urrutitik argi gutxi dago eta, zokoa guztiz ilunduz.

Pixkanaka-pixkanaka gerturatu naiz, zer izango den jakiteko irrikaz, baina beldurrez ere.

Nahikoa hurbildutakoan garbiago ikusi dut, hegazti txiki bat da! Hasieran ez dut antzeman zein hegazti mota den. Luma beltz eta zuri ikusgarriak ditu, moko laranja ilun polit bat eta hankak ere laranja. Zerbaitek arreta deitu dit, hankan daukan zauri batek, bai bitxia. Zokoan kiribilduta dago zer egin ez dakiela, bere begi txikietara begiratu diot, beldurra nabari zaio, beldur handia. Orduan, azkenean, konturatu naiz zein hegazti den; noizbait entzun dut txori hauei buruz, baina ez dut inoiz benetako bat ikusi, orain arte! Uste dut lanperna-musu izena dutela, baina noizbait entzuna dut Puffin izenez ere ezagutzen direla, izen bitxia, eta dibertigarria iruditzen zait, nahiago dut. Horrela deituko diot honi bada: Puffin!

Bat-batean, haizeak bizkarrean jotzen didala sentitu dut, atzera begiratu eta leiho bat erdi irekita dagoela ikusi dut. Hemendik sartuko zen animala txiki hau. Puffinek geldi jarraitzen du, ez da mugitu ere egiten. Zergatik ote? Agian zerbaitengandik ihesi dabil? Auskalo, izan da soilik neure buruak emandako erantzuna; leihoa itxi eta herria aztertzeraz, ezagutzera joan behar dudala erabaki dut, Puffinekin zer egin erabaki arte. Kanpora atera, eta lehen gauza hotz izugarria egiten duela nabaritu dut, sekulako hotza, hau ez dut gehiegi gustuko. Kanean, jende mordera dabil alde batetik bestera, denak izugarritzko zamarra potoloak dituztela soinean egun osoan pasako duten hotzari aurre egiteko, noski.

Kaleak, etxeak, guztia interesgarria eta berria iruditzen zait, honen bila nenbilen aspalditik, gauza ezezagunen bila.

Konturatu gabe, bat-batean, kale ilun eta estu batean sartu naiz, urrutian bi gizon bakarrik ikusten ditut, ez da inor gehiago ageri. Orain zer, aurrera egin... edo atzera? Aurrera egiten hasi naiz, baina bi gizonen aurpegia ikusita atzera egin dut, kaxa handi baten atzean ezkutatu, ez naute ikusi, eskerrak. Beldur ikaragarria ematen dute: batek begi more bat du, zerbaitekin kolpe izugarria hartu balu bezala, eta besteak, aldiz, aurpegiaren masail batean orbain izugarri bat. Biek irribarre gaiztoa dute ezpainenetan. Nire plana kaxaren atzean egotea da, bi gizonak joan arte, baina jakin minak bultzatuta kaxatik burua atera dut, zerbait ikusteko ahaleginetan. Biak oso baxu hitz egiten ari dira, inork ez entzutea nahi izango balute bezala. Hala ere, nik zerbait entzuten dut, nahiko gertu nagoelako; euskaraz ari dira, ara, zer sorpresa! Begi moreko gizonak, kamisetatik paper bat atera du ziztu bizian: argazki bat da.

- Begira, aurrekoan argazki bat ateratzeko aukera izan nuen. Hau da aurrekoan aipatu nizun txoria, dirudunak egingo gaituen Lanperna-musugorri bat. Islandian gelditzen den azkena da. -esan du hatzarekin erakusteaz batera.

Hori entzundakoan harritu eta beldurtu egin naiz, ez ote da izango etxean dudan txori bera?

-Ederki, ilegalki salduz gero diru mordo bat irabaziko genuke, baina non ikusi zenuen azken aldiak?
-galdetu dio besteak.

-Aurrekoan, atzetik denbora luzaroan ibili ondoren ihes egin zidan azken momentuan, eta konturatzeko etxe batean sartu zen, ez dakit zehazki zein etxe den, baina bai zein auzotako etxea izan daitekeen. -erantzun dio begi morekoak.

-Ongi da, ederki, bihar bertan gauean hasi dezakegu plana burutzen. - esan du orbaina duen gizonak, irribarre maltzur bat eginez.

Hori esan, eta biek eskua elkarri eman diote, bakoitza bere aldetik joanez. Bat, ni nagoen lekurantz abiatu da, eta nire ondotik pasatzerakoan argazkia lurrera erori zaio. Ni arnasarik gabe geratu naiz, baina aurrera jarraitu du, ezertaz konturatu gabe. Biak, begi bistatik galdutakoan, argazkia hartu dut, eta orduan, zalantzarik gabe, jakin dut etxean aurkitu dudan txoria dela. Gainera argazkiko hegaztiak, Puffinek bezalako zauria du ezkerreko hankan: ezin liteke beste bat izan, ezinezkoa!

Korrika atera naiz, nola edo hala, Puffin txikia salbatu behar dudala errepikatuz neure buruari, behin eta berriz. Ziztu bizian iritsi naiz etxetxora, atea ireki eta Puffinengana zuzendu dut begirada. Berdin jarraitzen du, zokoan kizkurturik. Jadanik ezin dut ezer egin, gaua da eta guztia ilunduta dago. Ohera joango naiz, leher eginda nago eta. Egun bitxia eta emozioz beteak izan da benetan gaurkoa, ez nuen halako ezer espero. Hala ere, biharkoa gogorragoa eta neketsuagoa izan liteke. Bihar pentsatuko dut plan bat, gaurkoz nahikoa izan da eta.

Riiiiing, riiiiing, riiing!!! Mugikorrek esnatu nau, kostata altxatu naiz poliki-poliki, eta mugikorra esku artean hartu dut: dei bat da, dei pribatu bat. Goizeko hamarrak dira, nor izango ote da ordu hauetan, familia agian?

-Bai, nor da? -esan dut aho zabalka, begiko makarrak kentzearekin batera.

-Badakigu zuk daukazula. Gaur eguerdiko hamabietan portuan elkartuko gara, zu eta txoria, inor gehiago ez. Ez abisatu polizari, bestela okerrago izango da. -esan du gizon misterioitsu eta ezezagunak, deia moztuz.

-Baina, nola dakite nik daukadala? Baina nola da posible, ez al zuten bada gaur gauean burutu behar plana?- garrasika esan dut, Puffinek salto bat emanez ikaratuta.

Lasaitu eta gero, motxila handi bat hartu dut eta Puffin barruan sartu dut, kremlera pixka bat irekita utziz, honek arnasa har dezan. Ez dakit zer egingo dudan oraindik, baina korrika atera naiz etxetik, hamaikak dira dagoeneko, azkar ibili behar dut. Zer egin ez dakidala, irtenbide bakarra poliziarengana joatea da, zer egin bestela? Hogeita bi urteko neska bat besterik ez naiz, justiziak laguntzea espero dut.

Ez dut ideiarik ere non dagoen polizia-etxea; horregatik, plano bat begiratzuz neure bidea jarraitu dut. Ez naiz ohartu, bi gizonak, kale iluneko gizonak ikusi egin nautela eta atzetik segika ditudala. Puffin nola dagoen ikustera gelditu naiz izkin batean, inor ageri ez dela ziurtatuz. Puffinek bi gizonak ikusi, motxilatik atera eta hegan egiten hasi da etxe bateko teilatuan pausatu arte. Hau hegaka atera dela ikustean, bi gizonak jadanik gainean nituela konturatu naiz. Ezin nuen korrika atera, izaturik nengoen, irtenbiderik gabe. Planaren azkena iritsi da, akabo.

-Emaguzu txoria, eman motxila hori! -esan didate bi gizonak, motxila tiraka eskuetatik kenduz.

Ez dut ezer esan, ez dakit zer esan, eta ez naiz konturatu ere egin, Puffin, jadanik ez dagoela teilatuan. Ez naiz ohartu ere egin, Puffinek bi zaku handi hartu dituela, eta teilatura bueltatu dela. PLOF! izugarri bat entzun da, begi moreko gizona lurtean da. Berrito ere beste PLOF! bat aditu dut: beste gizona ere lurtean da. Biek konortea galdu dute, Puffinek teilatutik jaurtitako zaku pisutsuek emandako kolpearen ondorioz.

Salbu gaude azkenean, Puffini esker! Mantso-mantso jaitsi da hegaka, heroi bat bezala.

Mugikorra hartu dut eta, denborarik galdu gabe, poliziari deitu diot. Handik gutxira azaldu da polizia tropa bat, bi gizonak hartu eta atxiloturik eramanez dituzte. Polizia nirekin egon da denbora luzez hitz egiten eta beraiek arduratuko direla Puffin salbu jartzen esan dit, ez arduratzeko. Babestutako parke natural batean libre utziko dutela esan didate ere.

Iritsi da agur esateko ordua, pena ematen dit. Hegaka etorri eta besoan jarri zait. Begietara begiratu diot, eta jadanik ez zaio beldurra antzematen. Ahoa ireki eta soinu arraro bat egin du, agian eskerrak eman dizkit, auskalo! Nik eskuarekin agur egin diot, kotxean sartzen zuten bitartean. Berak, aldiz, bere begi txikiekin agur esan dit, edo hori iruditu zait niri behintzat. Orain lasai nago, badakidalako leku seguru eta eder batera eramango dutela. Ez dut inoiz ahaztuko bi egun hauetan gertatutako guztia, dena zirrargarria izan da. Ez dut sinisten oraindik Islandian gelditzen den Lanperna-musugorri bakarria salbatu dudarik! Heroi bat naiz! Nire bizitzako bidaiarik hoberena izan da, amets bat dirudi... Hala ote?

Uxue Iruretagoiena. Ateruri

